

## JOSETXO ETXEBESTE: EUSKAL HERRIKO AZKEN HAUR BASATIAREN ISTORIO MISTERIOTSU ETA TRISTEA

Klaseak prestatzeko materialaren bila nabilen artikulu bitxi bat topatu nuenean: "*Euskal Herriko azken haur basatiaren istorio misterioitsu eta tristea*". Berehala Truffeau-en "*Le petit sauvage*"-ren irudia etorri zitzaidan burura. Kontxo! Ez nekien hemen ere halako kasuak gertatu zirenik. Ikasleen arreta erakar zezakeen gai aproposa izan zitekeela pentsatuz, artikulu irakurtzen hasi nintzen: "*Erreterian ba omen dago gizon bat hamalau urte txabola batetik atera gabe bizi izandakoa...*" Zeeeeer? Euskal Herrian gertatzea, tira!, baina non? Erreterian bertan! Eta nik orain arte ezer jakin gabe. Klasearen prestakizuna gero eta interesgarriagoa bihurtzen hasi zen. Erreportaia irakurri ondoren, zalantza bat argitu nahi nuen eta horretarako nire etxeoengana jo nuen;

haur basatiaren istorioa kontatu bezain laster izebak erantzun zidan: "Noski! Nola ez dugu Josetxo ezagutuko, bada! Baina ez zen basatia! Atzeratu samarra, beharbada. Han egoten zen sartuta beti, hospitalilloan, hil egin zen arte." "Aaaa! Eta aspaldi hil al zen" "Bai zera!, urte bat edo? Egunkarian eskela etorri zen..." Eta nik, esan dudana bezala, ordurarte ezer jakin gabe.

Astelehenean artikuluaren fotokopiekin azaldu nintzen klasean. Banatu eta irakurri egin genituen. Ikasleak ni bezain harrিতuta gelditu ziren. Irakurketarekin batera egunkarian argitaratutako Josetxoren argazkia esku guztietatik ibili zen. Azkenean, ikasle bakoitzari Josetxoren inguruko idazlantxo bat eskatu nion. Hona hemen hauetako hiru:



## Maialen Samsó

“Nik gauza harrigarri bezala gogoratzen dut Josetxoren istorioa. Nik zazpi urte besterik ez nituen. Lehen asilokoak izaten ziren meza motzenak eta han biltzen ginen Errenteriako jende gehiena. Nire gurasoek hara eramaten ninduten igandero, eta ni egun hura noiz iritsiko zain egoten nintzen; baina ez meza maite nuelako, Josetxo han egongo zela banekielako. Istorio harrigarri eta misteriotsua zebilen berari buruz “amoña-attona” eta gurasoen ahoetan. Niri, txikia nintzenez, beldurra eta jakin-mina sorrarazten zidan kontuak. Zaharrek zioten 1949an lau hanketan zebilen haur bat aurkitu zutela mendian biluzik eta 1935az geroztik gurasoek etxe-ko ukuluan gordeta eduki zutela subnormala edo atzeratua zelako. Halakorik! Ukuilutik ateratzen zuten batzuetan, baina ez zen basoan animalien artean bizitzera iritsi. Ez zuen inteligentziarik, bi urteko haur bat bezalakoa zen. Aurkitu zutenean ikusi zuen medikuak “el hombre lobo irrecuperable” deitu zion. Pentsa nik zer imajina nezakeen zazpi urterekin giza-otso batez. Nire barruan Gabon gauean lo egitera joaten zareneko sentsazio bera nuen: zer ekarriko zuen Olentzerok edo nolakoa izango zen Josetxo Errenteriako giza-otsoa? Mezetara joaten ginenean, beti presaka ibiltzen nituen familiakoak leku ona harrapatu ahal izateko. Josetxo itxuraz pertsona zen. Hala ere, bazuen begietan, ximurretan, eskuetan, gugandik bereizten zuen zerbait. Hitz egiten eta pentsatzen ez zekien pertsona batek beste modu batera adierazten zituen gauzak. Ez dut inoiz ahaztuko Euskal Herriko azken haur basatiaren aurrean nire begiek zuten jakin-minaren begirada, nire sabelak nerbioengatik ateratzen zituen soinuen burrunbada, nire eskuek ezin gelditurik jolasten zuten jolasa

## Arrate Rodríguez

1949 zen mutil hura miserikordiarra ekarri zutenean. Ez zekien ia hitz egiten, Justu-justu bere izena esaten zuen, eta batzuetan eskerrak ere ematen zituen. Sor Rosariok zioenez, mendian jaso zuten 14 urte zituenean, baina hark inoiz ez zigun ezer kontatu. Hasiera batean ipurdia busti-bustia eramaten zuen, gainean egiten baitzuen pixa, horregatik inork ez zuen bere ondoan eseri nahi. Urteak pasa ahala, zerbait ikasten zihoan, jaten zuen sardeska eta labanaz, eta arropa bakarrik janztera ohitu zen.

Ni partxisean jolasean ibiltzen nintzen, Consuelo Trampas eta beste batzuekin, nahiz eta honek gantxiloa nahiago izan. Berari taulako koloreak izugarri gustatzen zitzaizkion eta egunak pasa ahala, gurekin gehiago egoten zen. Guk ikusten genuen ez zela gu bezalakoa, atzeratu puntu bat zeukala, horregatik, fitxak ahora sartzen zituenean ez genion errieta handiegirik ematen.

Josetxo bere izena zela berak esan zigun arte hamar bat urte pasa ziren, guk bagenekien, baina Sor Rosariok edo beste mojaren batek esanda. Berarekin hitz egiten genuen, entzuten zigula jakinda, baina berak inoiz ez zuen hitzez erantzun, keinuka komunikatzen zen, nahiz eta askotan guri ulergaitza egiten zitzaigun. Nik “Dúo Dinámico”-ren abestiak jartzen nizkion, eta bera gustukoena “Quince años tiene mi amor” dioena zen. Edo niri hala otu zitzaidan, behintzat.

Consuelo Trampas ere oso maite zuen, gantxiloa egiten zuenean bere ondoan eseri eta lerdea zeriola geratzen zen. Sostenak egiten eta egiten aritzen zen garai haietan Consuelo, zaharren egoitzako emakume guztientzat.

Beraz, gu Josetxo estimatzen hasi ginenerako, bera oso ahul zegoen, eta 66 urte zituenean zendu zen bere ohe txikian lo zegoen bitartean. Malko asko isuri ziren egun hartan, oso gustuko zutenean begietatik, eta baita asiloan berriak zirengandik ere.

## Unai Garcia

Hil kanpaiak entzun dira gaur Erreterian Josetxo Etxebeste zenaren omenez. Elizkizunak asiloko kaperan izan dira noski, Josetxo han bizi izan baitzen 14 urterekin mendian piztia basati bat bezala aurkitu zutenetik.

Oso ondo gogoratzen dut nik Josetxo hospitalillora ekarri zuten eguna, urte hartan 49<sup>a</sup> zela uste dut, ni *novicia* iritsi berria nintzen asilora, deia entzuna nuen eta neure zeregina besteak laguntzea zela erabaki. Hilabete bat besterik ez neraman han Josetxo iritsi zenean, biluzik eta lau hanketan ibiltzen zen ume basatia.

- Hermana Caridad, hau Josetxo da, geure artean edukiko dugu hemendik aurrera.

Josetxok benetan animalia tankera zuela antzeman nuen, neure aurretik eraman zutenean Madre Superiorak bere istorioa kontatu zidan:

- Mendian aurkitu dute, ukuilu batean sarturik, zirudienez bere gurasoek han sartu zuten atzeratua zelako. Medikuak esan du gaixoa ez dela inoiz nentako gizakia izatera iritsiko, *hombre-lobo irrecuperable* diagnostikatu du.

Gure lana zaintzeaz gain Josetxori gizartean bizitzeko arau minimoak erakustea zen, ez zituen arropak jantzi nahi eta lehen aldietan guztiz txikitu zituen jantzitako alkandora eta prakak, jan ere eskuekin egiten zuen, piztien moduan.

Kostata, baina azkenean ikasi zuen Josetxok jantzita ibili behar zela. Ibili, izan ere bi hanketan eusten ere erakutsi behar izan genion. Hala ere, ezustekoan biluzten zen lehen asteetan, eta asiloko amona guztiak *Dios mío de mi almaka* hasten ziren oihuka. Azkenean denak ohitu ginen, ordea, eta ahal zuen moduan behintzat zoriontsu bizi izan zen Josetxo asiloan. Eraikinez aldatzean ni erretiratu egin nintzen, bazen garaia eta, bisita egiten nion ahal nuen guztietan eta azken egun hauetan ohi baino motelago aurkitu nuen nik, baina, zorionean ala zoritxarean orain Jainkoarekin dago Josetxo, azken ume basatia.